

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

ARKAITZ CARRACEDO CIC BIOGUNEKO IKERTZAILEA

“Oso garrantzitsua da minbizi mota eta tratamendua parekatzea”

CIC Bioguneko ikertzaile eta Onkologia Molekularra ikerketa taldeko burua, Arkaitz Carracedo bere esperientziaz hitz egin zuen NUP-en ospatutako IkerGazte kongresuan

NEREA ALEJOS
Iruñea

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) IkerGazte kongresua antolatu du bigarren aldiz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren campusean. Proiektu honen helburua ikertzaile euskaldunen ikusgarritasuna areagotzea, beraien arteko ezagutza sustatu eta euskarazko zientzia produkzioa zabaltzea da. Arkaitz Carracedo (Barakaldo, 1979) CIC Bioguneko

ikertzailearen eta Onkologia Molekularra ikerketa taldeko buruaren esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten ikertzaileek.

Aspalditik argi al zenukan ikertzaile izan nahi zenuela?

Biologia ikasi aurretik, sukaldaritza egin nahi nuen. Azkenean, ez dira horren ezberdinak. Etxean sukaltzen dudanean, esperimenduak egitea bezalako da.

Hiru urte igaro zenituen Estatu Batuetan. Zer azpimarratuko ze-

nuke hango esperientziaz?

Bai, 2007tik 2010ra. Pertsonalki, oso aberatsa izan zen, batez ere hango bizimodua ezagutzeko. Lanari dagokionez, Champions Leagueko futbol talde batera joatea bezalakoak izan zen. Ikerkuntzaren potentziala ezagutu nuen, hau da, maila horretan nola mugitzen diren elkarrekintza eta kolaborazioak. Gustoko nituen gauzak ikusi ondoren, baita gustoko ez nituenak ere. Niretzat oso garrantzitsua izan zen ikerkuntza nola bideratu nahi nuen erabakitzeke. Bi laborategietan egon nintzen, New Yorken eta Harvard-en. Esperientziarik hoberena izan zen nire fasean zeuden beste ikertzaileekin batera lana egitea eta prozesu horretan nagusitzea.

Nola sortu zen Euskal Herrira bueltatzeko aukera?

Nahiko goiz bueltatu nintzen, proiektua bukatu gabe. Pertsonalki, nire asmoa zen zentru txikiago batean lan egitea eta CIC Biogunerekin kontaktatu nuen. Karrera ikasten nengoenean, irakasle batek esan zidan: “Joan urrun, ikasi eta gero bueltatu, ze Euskal Herrian ikerkuntza sustatu behar dugu”. Beraz, ideia hori baneukan buruan.

Minbizi zelulen funtzionamendua aztertzen ari zara, hain zuzen, nola elikatzen diren.

Gure gorputzako zelulak komunitate batean bizi dira eta nahiko ondo antolatuta daude beren funtzioa betetzeko. Gure bizitzan zehar zelulek bikoiztu beharra dute, bere material guztia berri-datzi behar dute eta hor arazoak edo erroreak sartu ditzakete; errore horien pilaketak eragin

dezake minbizi. Mutazioak gertatzen badira, gorputzako zelula batek bere funtzioa aldatu dezake. Bere helburua izango da zati-tzea eta bizi iraitea, inguruneetik deskonektatuz.

Gero eta minbizi mota gehiago daude?

Minbizi gaixotasunez osaturiko multzo bat da, eta horregatik ehundaka gaixotasun ezberdin daude. Gure gorputzak zailtasunak ditu zelula normalak eta minbizi zelulak ezberdintzeko, horregatik da hain zaila tratatzea. Gero, gaixo bakoitzak daukan minbizi mutazio ezberdin baten ondorioa da. Orduan, minbizi guztiak ezin ditugu berdintzatu. Oso garrantzitsua da gaixoa, minbizi mota eta tratamendua parekatzea. Hau da, minbizi bakoitzaren ezaugarriak aztertu behar ditugu.

Zuen kasuan, zenbat minbizi mota aztertzen ari zarete?

Prostatiko eta bularreko minbiziak. Bigarrenean hain zuzen, talde txiki batean fokatzen ari gara, ezaugarri bereizgarriak ez daukan bularreko minbiziaren. Ezaugarri bereizgarriak ez duenez, orduan ez daukagu tratamendu efektibo bat. Orain ikeritzen ari gara nola sailkatu minbizi mota hori eta ze tratamenduak izan daitezke eraginkorrak. Prostatiko minbiziaren kasuan, zelula horiek nola elikatzen diren aztertzen ari gara, eta baita ere zein da gure gorputzaren elikadura eta minbiziaren arteko harremana. Hor obesitateak daukan eragina, edo kolesterola altua izateak.

Nola moldatzen zarete finantziarioaren aldetik?

Gure finantziarioa gehienbat prostatiko minbiziaren bideratuta dago. Urte hauetan sei edo zazpi proiektu ezberdinak eduki ditugu eta guztira 2,5 milioi euro jaso ditugu. Europa arloko proiektu oso handia lortu genuen eta horri esker egin ahal izan dugu ikerkuntza nabarmena. Gero, proiektuak sustatzeko, oso aberasgarria da ikerlari taldeen arteko elkarrekintza.

Zenbat ikerlari ari dira lanean?

Nire taldearen barruan talde txikiak antolatu ditugu. Egitura piramidal bat sortu dugu. Askoz hobeagoa da kudeatzeko, eta horrela ikerlarien independentzia ahalbidetzen dugu. Estatu mailan oso zaila da ikerlari gazte bat independente bilakatzea, hau da, bere taldeko burua izatea. Prozesu honekin laguntzen dugu talde baten barruan dauden ikerlari horiek nagusitzen.

Pozik zaude oraingo lortutako emaitzekin?

Bai, oso pozik. Proiektu arrisku-tsekin hasi ginen. Jendeak ere arriskua hartu zuen nire laborategira etorritik. Nire lehenengo laborategia zen eta jendeak ez zekien ze nolako perspektibak eduki. Talde oso jatorra lortu dugu, oso motibatuta. Gehienbat ikerlari gazteak gara, 20-40 urte bitartean gabiltza.

Orokorrean, penagarria da gaur egungo ikerlarien diaspora?

Bai, penagarria da estrategia ezaren ondorioa delako. Etorkizunari begira, ikerkuntza alor estratagikoa da: lurra lantzea bezalakoak da. Gure helburu nagusia uzta jasotzea baldin bada, epe motzeko helburuak ezartzen ditugu. Horretarako, haziak kanpotik erosten ditugu eta ezartzen ditugu. Ikerkuntzan, epe luzeko inbertsioa behar da, eta etorkizuneko produkzioa poliki-poliki atera behar da, barrutik sortuta. Oso ikerlari onak ditugu, Euskal Herrian bekak jaso dituztenak eta orain kanpoan daudenak. Baina Gobernuak badauka horrelako epe luzerako begirada botatzeko ahalmena? Hori da gakoa.

agenda

Maiatzak 15, astelehena

BISITA GIDATUA
Occidens erakusketa. Ezagutu jatorriak
Iruñeko Katedrala. 17:00-18:00
Izen-ematea: 4 €

Maiatzak 17, asteazkena

BISITA GIDATUA
Arkitekturaren garapena Iruñean
Topalekua: Nafarroako Arxibo Nagusia. 12:00-13:00
Izen-ematea: 2 € (leku-kopurua bete arte, 25 leku ibilaldi bakoitzeko)

Maiatzak 18, osteguna

HITZALDIA
Iruñeko zuhaitz zaharren balio kultural eta historikoa
Hizlaria: Mikel Belasko, Zuhaitz Zaharren Lagunak.
Mendillorriko Civivoxa. 19:00. Sarrera librea, alde aurretik gonbidapena hartuta, ordubete lehenagotik (gehienez ere bi gonbidapen pertsona bakoitzeko)

Maiatzak 19, ostirala

LANTEGIA
4 urtetik gorako haurrentzat
Kondestable Civivoxa. 17:15 - 19:15. Izen-ematea: 2 € saio bakoitzeko

Maiatzak 20, larunbata

IPUIN KONTALARIA
Maletako ipuinak EUSKARAZ
4tik 8 urtera bitartekoentzat, senidekoek lagunduta
Kontalaria: Maider Galarza
Sanduzelaiko Civivoxa. 12:00. Sarrera librea, alde aurretik gonbidapena hartuta, ordubete lehenagotik (gehienez ere bi gonbidapen pertsona bakoitzeko)

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es



180 IKERTZAILE GAZTEEK HARTU DUTE PARTE IRUÑEKO KONGRESUAN

Hiru egunetako jardunaren ondoren, ostiralean bukatu zen IkerGazte kongresua, aurreko Nafarroako Unibertsitate Publikoan antolatuta. Bigarren edizio honetan, 180 ikertzaile gazteek beraien lanak plazaratu dituzte eta besteen ikerketak ezagutu. Bestetik, ahozko komunikazio bidez zein posterren bidez aurkeztu diren 122 komunikazioak argitaratu egingo dira, euskarazko produkzio zientifikoari ekarpen adierazgarria eginez. Argazkian, Arkaitz Carracedo biologoa bere hitzaldia eman ondoren, pasa den ostegunean. GOÑI